

HONDARRIBIA / Harrera familiei buruzko antzerkia eta dokumentala emango dituzte bihar liburutegian

Harrera familiez mintzatuko dira bihar arratsaldean Hondarribiko udal liburutegian, Beroa Gipuzkoako Harrera Familien Elkarteak antolatu duen ekitaldian. Arratsaldeko bostetan hasiko da, haurrentzako antzerki batekin eta ondoren dokumentala proiektatuko dute. Bi ekitaldiak euskaraz izango dira.

17:00etan hasiko da harreraren gainean Beroak antolatutako jardunaldia. Haurrentzako antzerki saioa izango da aurrena, Maddi eta Anttonekin. Gaiarekin harremana duen obra prestatu dute bi pertsonaiek. Antzerkia eta gero, Gu ere harrera familia gara dokumentala emango dute liburutegian. Antzerki obra bezala, dokumentala euskaraz izango da, baina gaztelerazko azpitoluekin emango dute. Antzerkia zein dokumentala, biak herritar denentzat irekiak dira eta doan.

Biharko ekitaldia Beroak-ek Irrien Lagunak eta Zuondoan elkarteekin duen elkarlanaren barruan kokatzen da. Zuloaga Etxean, Beroa elkarteko kideak izango dira eta bertaratzen direnen zalantzak argituko dituzte. Besteak beste, harrera familia izateko zer egin behar den azalduko dute.